

4. ATALA

PRODUKTUEN  
ETA ZERBITZUEN  
FITXAK

# 4.24. ENERGIA- HORNIDURAK

## Sumarioa

1. Alderdi orokorrak
2. Jardunbide egokiak
3. Kontuan hartu beharreko ingurumen-alderdiak eta alderdi teknikoak
4. Ingurumen-ziurtagiriak
5. Merkatuaren egoera: egungo eskaintza
6. Ingurumen-irizpideak





## 4.24. Energia-hornidurak

### 1. Alderdi orokorrak

#### 1.1. Zer hartzen du barne?

Administrazio publikoak energia behar du bere azpiegiturek funtziona dezaten (eraikinak, kanpoko argi-instalazioak, ekipo informatikoak, ibilgailu-flotak, eta abar).

Energia motak energiaren jatorrizko iturria kontuan hartuta sailkatzen dira, eta irizpide horren arabera, bereizketa hau egiten da: energia berriztagarriak eta berriztaezinak.

Energia-iturri berriztaezinak naturan daude, baina kopuru mugatua da. Energia-iturri horiek guztiak kontsumitzen badira ezin dira ordeztu, ez baitago produkzio-sistema bideragarriak. Bi iturri mota daude: erregai fosilak (petrolioak, ikatza eta gas naturala) eta erregai nuklearrak.

2009/28/EE Zuzentarauan deskribatzen denez, energia-iturri berriztagarriak iturri berriztagarri ez fosiletatik eratorritako energia dira, hau da, energia eolikoa, eguzki-energia, energia aerotermikoa, geotermikoa, hidrotermikoa eta itsas energia, energia hidraulikoa, biomasa, zabortegiko gasak, araztegietako gasak eta biogasa eta errendimendu handiko kogenerazioa.

Europako zuzentzari horiek energiarekin lotura duten estrategiak ezartzen dizkigute eta energia berriztagarrietatik eratorritako energiaren erabilera sustatzeko jarraitu behar den ibilbidea ezartzen digute; horregatik, sektore publikoak gero eta gehiago azpimarratzen du energia berriztagarriak txertatu behar direla.

Zehazki, kapitulu honetan honako energia-hornidura hauei aplikatu dakizkiekeen ingurumen-irizpideak landuko dira:

- Hornidura elektrikoa: Funtsezko hornidura administrazio publikoaren funtzionamendurako eta zerbitzu publikoak emateko.
- Gas naturalaren hornidura: Administrazio publikoak titulartasun publikoko eraikinak girotzeko erabiltzen du batez ere.
- Gasolioaren hornidura: Litekeena da administrazioak A, B edo C gasolioa erosi behar izatea, gasolio horri ematen zaion erabileraren arabera: ibilgailuak, ontziak/makineria edo berokuntza.

Ahal den neurrian kontuan hartuko dira hornitutako energiaren ezaugarriak, kontsumitzaileari emandako informazioa eta kontratatzailearen energia-kudeaketa ahalbidetzen duten beste zerbitzu erantsi posible batzuk.



## 1.2. Non gaude?


Azken erabilerara iritsi arte, energia-hornidurak hainbat fasetatik igarotzen dira (sorrera, garraioa eta banaketa) eta fase horiek eragina dute ingurunean, hala nola habitat naturalak aldatzea, floraren eta faunaren perturbazioa, errekontzaren emisioak, hondakinak, ikusizko inpaktua, zaratak, isuriak, eta abar.

Euskadiren helburua energia berriztagarri lehiakorren erabilera sustatzea eta energia gutxiago kontsumitzea da. Horrek esan nahi du energia-mendetasuna murriztu behar dela eta herrialde egonkorragoa, ingurumenari dagokionez jasangarria eta lehiakorra dena lortu behar dela, eta, aldi berean, dirua aurreztu behar dela.

Europako zuzentzauek, estatuko araudiek eta EAEko dekretuek (Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzko irailaren 22ko 178/2015 Dekretua, adibidez) energiari dagokionez gero eta efizienteagoa den eta eredu gisa oso zeregin garrantzitsua duen sektore publiko bateranzko bidea ezartzen digute.

Energiarekin lotura duten araudi eta estrategia horiek gero eta gehiago azpimarratzen dute energia berriztagarriak txertatu behar direla eta kontsumoen kontrola egin behar dela neurtzeko ekipoen bitartez. Bi alderdi horiek dira kontuan hartu behar diren alderdi garrantzitsuenak energia-hornidurari buruz soilik hitz egiten badugu.

Rol desberdinak dituzten hainbat agentek esku hartzen dutenez energiaren merkatuan (sortzaileak, garraiolariak, banatzaileak eta merkaturatzaileak) eta administrazioak energia asko erosten duenez, administrazioan ingurumen-irizpideak sartzeak inpaktu handia izango du.



Sortzaileak beren produkzio-instalazioetan energia elektrikoa sortzeaz eta energia elektrikoaren garraio-sarean injektatzeaz arduratzen direnak dira. Produkzio-instalazio horiek hainbat motatakoak izan daitezke: gas-zentralak, ohiko zentral termikoak, zentral nuklearrak, zentral hidraulikoak edo elektrizitatea produzitzen duten eta ordezko energiak erabiltzen dituzten instalazioak.

Garraio-enpresak goi-tentsioko energia garraiatzeaz eta erabiltzen dituzten azpiegiturak kudeatzeaz, mantentzeaz eta konpontzeaz arduratzen dira. Elektrizitatea sortzen, banatzen edo merkaturatzen duten enpresetan ezin dute parte hartu, ez zuzenean, ezta zeharka ere.

Banatzaileak erdi- eta behe-tentsioko energia garraiatzeaz arduratzen dira, baita erabiltzen dituzten azpiegiturak kudeatzeaz, mantentzeaz eta konpontzeaz ere (kalitateko eta etenik gabeko hornidura elektrikoa bermatzeko ardura dute). Beren erabiltzaile guztiei zerbitzua emateko, hartuneaz eta neurtzeko ekipoaz hornitu beharko dituzte erabiltzaileak.

Merkaturatzaileak elektrizitatea aukera-merkatuan erostez eta azken bezeroei saltzeaz arduratzen dira, eta beren tarifa elektrikoak ezartzen dituzte. Merkaturatzaile bakoitzak enpresa banatzailearen jabetzakoak diren linea elektrikoak erabiltzen ditu energia bere bezeroengana garraiatzeko eta ordaindu egiten du sarea erabiltzeagatik.

Energia berriztagarrien iturriak sortzaileen mende dauden arren, lizitatzailerak enpresa merkaturatzaileekin dauka harremana.

### 1.3. Nola jokatu behar da?

Energia-hornidurarekin lotutako ingurumen-inpaktuak murrizteko honako hau egin behar da:

- a) Energia produzitzeak eragiten dituen ingurumen-inpaktuak murriztea:  
Iturri berriztagarrietatik eratorritako energia kontsumitzen bada, energia-produkzioaren jasagarritasuna bermatzen da eta ingurumen-inpaktuak murrizten dira, batez ere CO<sub>2</sub>ren emisioak.
- b) Ingurumen-inpaktuak murriztea energia-kontsumoan:  
Alderdi hori oso garrantzitsua da, adibidez, gasolioaren horniduran, gasolioaren erabilera hainbat emisioekin lotuta baitago errekontza-prozesuan.
- c) Energia gutxiago kontsumitzea eta energia ahalik eta modu efizienteenean erabiltzea jarduera publiko guztietan:  
Energia-horniduraren kontratuetan energia-efizientzia bilatzen duten balio erantsiko zerbitzuak sar litezke; izan ere, jardun horien helburua aurrezki ekonomiko garrantzitsuak lortzea da.
- d) Neurriak ezartzea kontsumoak kontrolatzeko:  
Datu horiei esker jakin ahal izango da non eta noiz kontsumitzen den gehiago, energia eta dirua aurrezteko neurriak hartu ahal izateko.



## 2. Jardunbide egoki operatiboak

### 2.1. Nola murriztu behar da kontsumoa?

Energiaren kontsumoa orokorrean murrizteko, garrantzitsuak dira energia kontsumitzen duten eraikinen edo ekipoen energia-ezaugarriak, baina erabilera eta mantentze egokiak egitea ere funtsezkoa da. Energia-kontsumoa murrizteko hartu behar diren estrategiak asko dira:

- Azpiegitura publikoak eskuratzeko edo berritzeko faseetan eraikinen, energia kontsumitzen duten ekipoen edo ibilgailu-floten energia-efizientziaren ezaugarriak hartu behar dira kontuan.
- Erabileraren fasean, azpiegituren kudeaketa egokia bada, energia-kontsumoa nabarmen murriztu daiteke honako honen bitartez:
  - a) Azpiegituren energia-funtzionamendua eta azpiegiturei buruz egiten den eskaera aldakorra lotzen dituzten erregulazio- eta kontrol-sistemen bitartez.
  - b) Energia monitorizatzeko sistemak inplementatzea energiaren erabilera optimizatzeko.

Gainera, funtsezkoa da erabiltzaile guztiak kontzientziatzea erabilera arrazoizkoa eta efizientea egiteko. Beraz, ezinbestekoa da erabiltzaileei jarduteko eta jardunbide egokiei buruzko jarraibideak ematea kontsumo arduratsua egiteko.

- Mantentze-fasean bermatu behar da azpiegiturek behar bezala funtzionatzen jarraitzen dutela eta lehendik dauden ekipoen ordez ekipo efizienteagoak jar daitezke (berokuntza-sistemak, aire girotua, igogailuak, ibilgailuak, argiak eta abar).

#### 1. KASUA. Gasteizko Udala

Gasteizko Udala aitzindaria izan da energia-horniduraren kontratuan biltzen diren preskripzio teknikoetan eskatzen energiaren % 100en jatorriak energia-iturri berriztatzaileak izan behar duela. Jardunbide egoki hori 2015eko apirilean jarri zuen abian.

Energia iturri berriztagarrietatik datorrela behar bezala ziurtatzeko, Jatorri Berriztagarria Bermatzen duen Ziurtagiria, ziurtapen-erakundeek emandakoa, aurkeztu behar da Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren arabera.

## 2.2. Nola ezagutu benetako premiak?

Energia-kontratazio zuzena egiteko, energia-premiak ezagutu behar dira, energia-kontsumoa arrazoizkoa izateko eta kontratatutako potentzia benetako premietara egokitzeke.

Horretarako, ohikoena da hornidura-puntu bakoitzerako aurreko ekitaldietan hornitutako energia kopuruaren zerrenda jartzea lizitazioan, baina, gainera, saiatu behar dugu gehiegizko kontsumoak detektatzen, eta, horretarako, hainbat tresna daude:

- Hornidura kontratuaren xede duten eraikinen energia-auditoriak.
- Eraikinaren energia-ziurtagiria eraikinen energia-kontsumoa eta emisioak zein diren jakiteko bitarteko gisa.
- Eraikinaren energia elektrikoaren eta termikoaren kontsumoak neurtzeko kontagailuak jartzea.

Energia elektrikoaren horniduraren kasuan, gainera, gerta daiteke kontratatutako potentziak behar direnak baino handiagoak izatea. Arau orokor gisa, gomendatzen da esleipendunari eskatzea kontratatutako potentziak berrikus ditzala.

## 2.3. Zer eta nola kontratatzen dut?

Administrazio gehienetan, energia modu zentralizatuan erosten da prozedura irekiaren bidez.

Normalean, kontratuak esleitzeko eskainitako prezioan oinarritzen diren kontratuak izaten dira eta ez dute balio-judizioaren mendeko balioespen-irizpiderik izaten.

Ingurumen-irizpideak txertatzeko, guk gomendatzen dugu energia erosteko espezifikazio tekniko gisa funtsezko ingurumen-irizpideak txertatzea, hala nola energiaren iturri berriztagarrien jatorria, kontsumo-datuaren eskuragarritasuna, datuak kontagailuen bitartez neurtuta, eta esleipendunak jasoko duen informazioaren definizioa, erakunde kontratatzaileari benetako energia-kontsumoaren jarraipena egitea ahalbidetuko diona.



### 3. Kontuan hartu behar diren ingurumen-aldertiak eta alderdi teknikoak

#### 3.1. Ingurumen-irizpide espezifikoak elektrizitatea erosteko: Energiaren jatorria

Energia-iturri berriztagarrien jatorria energia elektrikoaren horniduretan soilik aplika daiteke; izan ere, gasaren eta gasolioaren horniduretan ez dago ziurta daitekeen ingurumen-irizpiderik.

Energia-iturri berriztagarrietatik eta/edo efizientzia handiko kogeneraziotik eratorritako elektrizitatea, 2009/28/EE Zuzentarauan deskribatzen denez, honako hauek dira: energia eolikoa, eguzki-energia, energia aerotermikoa, geotermikoa, hidrotermikoa eta ozeanikoa, hidraulikoa, biomasa, zabortegiko gasak, araztegietako gasak eta biogasa.


Kontratututako energia, bai energia-iturri berriztagarrietatik datorrena, bai efizientzia handiko kogeneraziotik eratorritakoa, bermatzeko, **Jatorri Berriztagarria Bermatzen duten Ziurtagiriak** daude. Sistema hori Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (MLBN) kudeatzen du Espainian.

Jatorri Bermea ziurtapen elektroniko bat da, zentral batean ekoiztako megawat-energia elektrikoaren ordu kopuru jakin bat iturri berriztagarrietatik sortu dela bermatzen duena.

Jatorri Berme bat emango da energia-iturri berriztagarrietatik eratorritako elektrizitate-ekoizle batek eskatzen duenean. Jatorri Bermea 1MWh-ko bolumen estandar bati dagokio eta ekoitzi ondorengo 12 hilabeteko epean soilik erabili ahal izango da.

Jatorria Bermatzeko Sistemari sartzeko, lehenik eta behin, instalazioaren titularrak MLBNri eskatuko dio Jatorri Bermearen zenbaki bat eman diezaiola. Ondoren, MLBNk egiaztatu ondoren, bermeak emango zaizkio titularrari. Jarraian, jasotako bermea estatuko merkaturatzaile bati transferituko dio titularrak eta merkaturatzaile horrek edukiko ditu jatorri-bermeak. Instalazioak sortu duen energia esportatu nahi badu, EBko merkaturatzaile bati transferituko dio bermea. Azkenik, merkaturatzailea arduratuko da berme hori bere Hornidura Puntuen Kode Bateratuaren (HPKB) bidez identifikatutako azken kontsumitzaileari transferitzeaz. Jatorri Berme batekin egiten diren transakzio guztiak erregistratzen ditu MLBNk.

Energia sortzeko erabili den energia-iturriaz gain, ziurtagiri horrek energia hori sortzen hasi zen eta amaitu zen datak zehazten ditu, eta energia hori sortu duen instalazioaren identitateari, kokapenari, motari eta edukierari buruzko informazioa ere ematen du.



### 3.2. Ingurumen-irizpide espezifikoak gasa erosteko

Gas-horniduraren kasuan zaila da jatorriari buruzko ingurumen-irizpideak ezartzea, antzeko osaera dutelako; horregatik, hornidura mota hori erosteko garaian ezartzen diren ingurumen-irizpideak honako honetara murrizten dira: administrazioak energia-kudeaketa zuzena egiteko behar duen informazio guztia jasotzen du.

### 3.3. Ingurumen-irizpideak gasolioa erosteko

Gasolio-horniduraren kasuan, honako ingurumen-alderdi hauek har daitezke kontuan hornidura hori kontratatzeke:

- Sufre-edukia: Sufre-edukia zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta hobea izango da gasolioa ingurumenari dagokionez.
- Gasolioa banatzen duten kamioi-flotaren ezaugarriak: Azter daiteke kamioiek betetzen ote duten errekuntza-gasen emisio-mailari buruzko EURO VI araudia.

Jarraian, energia elektrikoaren hornidurak eta gas-hornidura erosteari dagokionez kontuan izan behar diren alderdi tekniko batzuk azalduko dira, hala nola kontsumoen monitorizazioa eta kontsumitzaileari emandako informazioa, baina ingurumen-alderdi horiek ez dira nahitaez bete behar.

### 3.4. Kontsumo elektrikoaren monitorizazioa

Energia-horniduraren kontratazioak bermatu behar du merkaturatzaileak erabiltzen dituen tarifakazio-kontagailu guztiak urrunetik irisgarriak izan daitezkeela azken erabiltzailearentzat.

Horrez gain, energiaren kontsumo arduratsua sustatzeko eta kontsumitutako energiaren kudeaketa optimizatzeko, interesgarria da energia elektrikoaren kontagailuak jartzea, kontsumoen informazioa jarritako ekipoen eta sistemen artean bereizita jasotzen duten kontagailuak, alegia (argiztapena, giroztea, eta abar).

Horrela, zehazki jakin daitezke egindako kontsumoak, kontsumoen aldi baterako jarraipena egin daiteke eta energia hobetzeko eta aurrezteko neurriak detekta daitezke.

### 3.5. Kontsumitzaileari informazioa ematea energia elektrikoaren hornitzeke

Energia-kontsumoei buruzko jarraipena egiteko interesgarria da hornidura-puntu bakoitzari buruzko informazio xehatua izatea, hilabete naturalarekin bat datorrena, eta erakunde kontratatzaileak erabiltzen duen informazio-sistemarekin bateragarria den formatuan.

Gainera, energia elektrikoaren horniduraren kontratazio egokia egiteko, zehazki jakin behar da zein den kontsumitutako energia, eskatutako benetako potentzia zein den, baita faktura elektrikoaren osatzen duen zati bakoitza zein den ere. Ondoren, faktura elektrikoaren osatzen dituzten alderdi horiek banakatuko dira:

#### 1. Tarifa finkoa = $T_p \cdot \text{Fakturatutako potentzia (PF)}$

$T_p$  (Potentziaren araberrako ordainsaria edo ATR potentzia): Sare elektrikoaren erabiltzeagatik ordainsari gisa jartzen den prezioa da (arautua) (€/KW).



Fakturatutako potentzia (PF) kalkulatzeko % 85 - % 105 erregela erabiltzen da

- Kontratutako potentzia (PC): Bezeroak merkaturatzailearekin kontratatzen duen potentzia da.
- Maximetroaren potentzia (PM): Bezeroak gastatu duen potentziaren irakurketa da, maximetroan irakurria.
- Fakturatutako potentzia (PF): Merkaturatzaileak potentziarengatik kobratzen digun zenbatekoa da.

Erregela hau da:

**PM < % 85PC bada, PF = % 85PC**

**% 85PC < PM < % 105PC bada, PF = PM**

**PM > % 105PC bada, PF = PM + 2 x (PM - % 105PC)**

**2. Energia-terminoa** = PE \* Kontsumitutako energia

Energia-prezioa (PE) = Te + E

- (Te): Sare elektrikoa erabiltzeagatik ordainsari gisa jartzen den prezioa da (arautua). (€/KWh)
- (E): Elektrizitate-merkaturatzaileak energia saltzeko jarri duen prezioa da. (€/KWh)

**3. Energia erreaktiboa:** Sortutako energia erreaktiboagatik penalizazioa da.

Energia erreaktiboa energia elektriko mota bat da, ekipo elektriko batzuk saretik xurgatzen dutena, baina gero itzultzen dutena; horregatik, ez da kontsumoa, baina sortu egin behar da eta ekipoetaraino garraiatu behar da. Horregatik, konpainia elektrikoek fakturan penalizatzen dute energia erreaktiboaren kontsumoa balio jakin batetik aurrera.

**4. Elektrizitatearen zerga:** % 5,1127, Zerga berezien erregelamenduari buruzko 1165/1995 Errege Dekretuaren arabera.

**5. Ekipoen alokairua:** Enpresa banatzaileak energia neurtzeko aparatuarengatik kobratzen duen zenbatekoa.

Horrela, informazio xehatua emanez, erabaki egokiak hartzea sustatzen da energia gehiago aurrezteko.

### 3.6. Kontsumitzaileari zuzendutako informazioa, gasa hornitzeko

Gas-kontsumoen jarraipena egiteko, interesgarria da hornidura-puntu bakoitzari buruzko informazio xehatua edukitzea. Gainera, gas-horniduraren kontratazio egokia egiteko, zehazki jakin behar da faktura elektrikoa osatzen duen zati bakoitza zein den. Ondoren, gas-fakturak osatzen dituzten alderdi horiek banakatuko dira:

**1. Bezeroaren informazioa eta kontratuaren datuak:** atal honetan datu pertsonalak eta hornidura-kontratuaren datuak daude, hala nola kontratuaren titularra, horniduraren helbidea, kontratu-zenbakia, HPKB hornidura-puntuaren kode unibertsala, faktura-zenbakia, igorpen-data, fakturazioaldia eta kontratatutako sarbide-tarifa, besteak beste.

**2. Energia-terminoa:** kontsumitutako energiarengatik ordaintzen den guztizko zenbatekoa da. Dagokion aldian egindako kontsumoa kWh-rekin biderkatuta lortzen da.





## 4. Ingurumen-ziurtagiriak

Energia-iturri berriztagarrien jatorriari buruzko ingurumen-ziurtagiriak energia elektrikoaren horniduretan soilik aplika daitezke; izan ere, gasaren eta gasolioaren horniduretan ez dago ziurta daitekeen ingurumen-irizpiderik.

Honako hauek dira energia elektrikoa hornitzeko ingurumen-ziurtagiriak:

### 4.1. Energia elektrikoaren ekoetiketatzea


Jatorria Bermatzeko Sistematik eratorritako informaziotik abiatuta eta ezarritako araudiaren arabera, MLBNk Jatorria Bermatzeko Sistemari parte hartu duten enpresa merkaturatzaileen energien jatorriaren mixa eta produkzio nazionalaren mixa kalkulatzeko n+1 urteko martxoaren 31n, baita mix orokor bat ere Sistemari parte hartu ez duten merkaturatzaileentzat (adibidez, Azken Baliabideko Merkaturatzaileak).

Halaber, MLBNk dagozkion ingurumen-inpaktuak kalkulatzeko CO<sub>2</sub>-ren emisioak eta hondakin erradioaktiboak kontuan hartuta. Informazio horrek Ekoetiketa Energetikoa izenekoa eratzen du. Kalkulu guztiak aurreko urtekoak dira.


Europako Zuzentarauaren arabera, enpresa merkaturatzaileek azken kontsumitzaileari bidaltzen dizkieten faktura elektrikoetan honako hau bildu behar dute: lehen mailako energia-iturri bakoitzak aurreko urtean merkaturatutako energian egin zuen ekarpenaren banakapena, baita CO<sub>2</sub>-ren emisio espezifikoei buruzko informazioa ere.

### ELEKTRIZITATEAREN JATORRIA

**Ekoizpen-nahasketa espainiar sistema elektronikoan 2015**



**A komertzializatzailearen nahasketa**




- Berriztagarria
- Erakinkortasun handiko baterako sorkuntza
- Baterako sorkuntza
- Gas Naturaleko ZK
- Ikatza
- Fuela / Gasa
- Nuklearra
- Beste batzuk

### INGURUMEN-INKAKTUA

Zure elektrizitatearen ingurumen-inkaktua haren sorkuntzarako erabilitako energia-iturrien arabera da.

A eta G bitarteko eskala batean, non A-k ingurumen-inkaktu txikiena eta G-k ingurumen-inkaktu handiena adierazten duten, batez besteko nazionala D mailari dagokiona izanik, zure «A Komertzializatzaileak» komertzializatzen duen energiak balio hauek ditu:



Batezbesteko Nazionala (0,30)



Batezbesteko Nazionala (0,48)



## 4.2. Bestelako ingurumen-ziurtagiriak energia elektrikorako

### ETIKETA

### LOGOTIPOA

### ESKATZEN DIREN INGURUMEN-IRIZPIDEAK

**EKO ENERGY**  
(Europa)



- Kontsumitzaileei informazioa emateko baldintzak: Energiaren jatorrizko herrialdea eta zer energia mota den
- Produzio-instalazioen baldintzak: Esate baterako, energia eolikoaren, eguzki-energiaren edo energia geotermikoaren kasuan, irizpide geografikoak ezartzen dira (interes naturaleko eremuetatik edo eremu babestuetatik kanpo), elektrizitate hidraulikoaren kasuan etiketa hori izan dezake soilik elektrizitate hori sortzen duen instalazioaren ezaugarriek eta tamainak ezarritako irizpide ekologikoak zorrotz betetzen baditu, eta biomasarako ere parametro zehatzak daude jatorriari eta produzio-prozesuaren efizientziari buruz.
- Funts klimatikoetara egiten den ekarpena: Saldutako MWh bakoitzeko gutxienez 0,10€-ko ekarpena egingo da EKOenergiaren Funts Klimatikora proiektu berriak finantzatzeko eta elektrizitate berriztagarriari inbertsioak egiteko.

**OK POWER**  
(Alemania)



- Inolako jabetza-harremanik ez izatea instalazio nuklearren eta ikatz-instalazioen enpresa ekoizle/operadoreekin.
- Kontsumitzailea babestea (ordainketak, gutxieneko bermaturik ez izatea)
- Ingurumen-baldintzak ekoelektrizitatearen instalazio ekoizleentzat.

**NATUREMADE**  
(Suitza)



- Energia berriztagarriak sortzen dituzten instalazioetarako ingurumen-irizpideak

## 5. Merkatuaren egoera, dagoen eskaintza

Jatorri berriztagarriko energia elektrikoari dagokionez, eskaintza eskaera baino handiagoa da gaur egun oraindik.

Jatorria bermatzeko sistemaren bitartez emandako bermeak 2015eko ekoizpen nazionalaren % 26,8 dira eta % 60,3 energia-iturri berriztagarrietatik eta kogeneraziotik eratorritako produkzio nazionalari dagokionez. Beraz, Jatorria Bermatzeko Sistemaren bitartez kudeatzen ez den energia berriztagarriaren produkzioa dago.

2015eko produkzio nazionalerako, jatorri-bermeen 72.575 GWh eman ziren; horietatik 3.163 GWh esportatzeko eskatu ziren. 2015. urtean salmentak egin zituzten 65 merkaturatzaileetatik 33k % 100ean dituzte estalita beren salmentak energia berriztagarriekin eta efizientzia handiko kogenerazioarekin.

Gainerako ingurumen-ziurtagiriak ez daude oso hedatuta; estatuan, zehazki, soilik bi enpresak daukate EKO Energy Europako ziurtagiria.





## 6. Ingurumen-irizpideak

### 6.1. Prozedura irekiaren bidez kontratatzeko irizpideak

Kontratazio-modalitate horretarako proposatzen diren pleguak idazteko irizpideak Ihoberen webgunean daude eskuragarri ([www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus), ingurumen-politika, Erosketa publiko berdea).

Talde horretarako, hainbat eskakizun-maila proposatzen dira kontratatuko den hornidura motaren arabera: oinarrizkoa, aurreratua eta bikaina.

Administrazio bakoitzak hornidurari emango dion erabilera kontuan hartuta, bere egoerara gehien egokitzen den eskakizun-maila hautatu ondoren, ingurumen-irizpideez gain (espezifikazio teknikoak) esleipenarekin eta eskaintza teknikoaren edukiekin lotutako irizpideen proposamena ere aurkituko du maila bakoitzerako.

### 6.2. Mailak hornidura motaren arabera

#### 6.2.1. Energia elektrikoaren hornidura

Oro har, energia elektrikoa hornitzeko, honako irizpide hauek sar daitezke:

#### OINARRIZKO MAILA

**Energiaren jatorria:** Gutxienez **% 20** energia-iturri berriztagarrietatik eta/edo efizientzia handiko kogeneraziotik sortutako energia elektrikoa kontratatzea.

**Kontsumitzailearentzako informazioa:** Erakunde esleipendunak espezifikazio teknikoetan zehaztutako informazioa igorriko dio erakunde lizitatuileari.

Energia-iturri berriztagarrietatik eta/edo eskatzen den errendimendua baino errendimendu handiagoko kogeneraziotik sortutako eta hornitutako elektrizitatearen %-a balioetsiko da.

#### MAILA AURRERATUA

**Energiaren jatorria:** Gutxienez **% 50** energia-iturri berriztagarrietatik eta/edo efizientzia handiko kogeneraziotik sortutako energia elektrikoa kontratatzea.

**Kontsumitzailearentzako informazioa:** Erakunde esleipendunak espezifikazio teknikoetan zehaztutako informazioa igorriko dio erakunde lizitatuileari.

Energia-iturri berriztagarrietatik eta/edo eskatzen den errendimendua baino errendimendu handiagoko kogeneraziotik sortutako eta hornitutako elektrizitatearen %-a balioetsiko da.

#### MAILA BIKAINA

**Energiaren jatorria:** Gutxienez **% 100** energia-iturri berriztagarrietatik eta/edo efizientzia handiko kogeneraziotik sortutako energia elektrikoa kontratatzea.

**Kontsumitzailearentzako informazioa:** Erakunde esleipendunak espezifikazio teknikoetan zehaztutako informazioa igorriko dio erakunde lizitatuileari.

### 6.2.2. Gasaren hornidura

Oro har, gasa hornitzeko, honako irizpide hauek sar daitezke:

#### OINARRIZKO MAILA

**Kontsumitzailearentzako informazioa:** Erakunde esleipendunak espezifikazio teknikoetan zehaztutako honako informazio hau igorriko dio erakunde lizitatzailari:

- Formatu elektronikoan egindako faktura.
- Excel formatuan egindako fitxategia edo espezifikazio teknikoetan zehaztutako informazioarekin bat datorrena.
- Excel formatuan egindako txostena, hornidura-puntu bakoitzeko kontsumoei jarraipena eginez.

### 6.2.3. Gasolioaren hornidura

Oro har, gasolioa hornitzeko, honako irizpide hauek sar daitezke:

#### OINARRIZKO MAILA

**Osaera:** Eraginkortasun handiko eta ingurumen-inpaktu txikiko gasolioaren kontratazioa. Erakunde lizitatzailak eskaintzen den gasolioaren ezaugarri kualitatiboak adierazi beharko ditu bere eskaintzan. Sufre-edukia zehaztu beharko da (mg/Kg).

**Kontsumitzailearentzako informazioa:** Erakunde esleipendunak espezifikazio teknikoetan zehaztutako informazioa igorriko dio erakunde lizitatzailari.

#### MAILA AURRERATUA

**Osaera:** Eraginkortasun handiko eta ingurumen-inpaktu txikiko gasolioaren kontratazioa. Erakunde lizitatzailak eskaintzen den gasolioaren ezaugarri kualitatiboak adierazi beharko ditu bere eskaintzan. Sufre-edukia zehaztu beharko da (mg/ Kg).

**Kontsumitzailearentzako informazioa:** Erakunde esleipendunak espezifikazio teknikoetan zehaztutako informazioa igorriko dio erakunde lizitatzailari.

Balioetsiko da araudian adierazten den sufre-edukia txikiagoa izatea.

Hornitzeko erabiliko diren zisterna-kamioien kopurua balioetsiko da EURO VI araudian errekuntza-gasen emisioen mailari buruz egiten den adierazpena betetzen duten guztizkoarekin alderatuta.

